



LANGABETUAK KONTRATATZEKO DEIALDIA

ETXARRI ARANAZKO UDALEKO ZERBITZU ANITZEKO LANGILEAK KONTRATATZEKO DIRU LAGUNTZARI BURUZKOAK

1.-Arau orokorrak.

1.1.-

Deialdi honen xedea da oposizio bidez Etxarri Aranazko Udalaren zerbitzu anitzetako 4 langile 4 hilabete eta 10 egunerako kontratazioa egitea. Kontratu laborala izango da eta Nafarroako Gobernuak urtero ematen duen diru laguntzarekin lotuta egongo da: interes orokorreko eta sozialeko obra eta zerbitzuak egiteko, toki entitateei langabeak kontratatzeke diru-laguntzak ematearen oinarrien arabera izango da.

Nafarroako Enplegu Zerbitzuak lanposturako baldintzak betetzen dituztenen zerrenda baliatuko dugu. Ondotik, hautespen probak gainditzen dutenekin zerrenda osatuko dugu puntuazioaren hurrenkerari jarraikiz,

Hautapen prozedura diru laguntza deialdia arautzen dituen arauak jarrituta egingo da (233/2012ko Ebazpena) eta subsidiarioki, Sarbide Erreglamenduko 42 artikulua jarraituz.

Kontratu beharreko pertsonak kolektibo hauen artetik hautatuko dira:

a) 2 langabetu: Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria Departamentuak gizarteratzeko edo lan munduan eta gizartean txertatzeko ematen dituen diru-laguntzak jasotzen ari direnak. (RIS, PREPARA edo senideak) Baldintza hau kontratazioa egiten denean bete behar da (emateko erabakia edo baieztoko txostena). Gizarte Zerbitzuzak konprobatuko du.

b) 2 langabetu:

- 50 urtetik gorakoak.

- 30 urtetik beherakoak.

-Desgaitasunen bat duten pertsonak, gutxienez %33ko desgaitasuna dutela aitortzen duen ziurtagiri baten bidez egiaztatua.

-Luzaroko langabeak, kontratazio egunean gutxienez urtebete lehenagotik inskribaturik daudenak.

1.2.- Deialdi honen xedea da zerbitzu anitzetako behin behineko udal langilea izatea. Gizarte Segurantzaren altan emango zaio.

1.3.- Soldata: diru laguntza eskaeran aipatzen dena: 1.626,22 euro gordina

1.4.-Lanaldia. Zerbitzuaren beharretara moldatuko da, eta kontratazio bakoitzeko egiten denean erabakiko da. Baliteke gozietz, arratsaldez edota zatitua eta zerbitzuen beharretara egokituko da eta organo eskudunek edozein momentutan aldatu ahal izango dute, bai kontratazioaren hasieran edo bitartean.

1.5.-Betebeharreko funtzioak lanpostuaren kategoriari dagozkionak dira, besteak beste:

- a) Udalaren eraikin eta instalazioen kontserbazio eta mantentze-lanak: elektrizitatea, iturgintza, zurgintza, margoketa, igeltsero lanak...
- b) Kale eta plazetako lorategi eta zuhaitzetan aritzea, eta beraz erein, landatu, ureztatu, inausi, lurra lantzea, eta abar.
- c) Kale eta plazak garbitzea eta berdeguneak ureztatzea.
- d) Ondasun publikoak kontserbatzeko obrak: elektrizitatea, iturgintza, zurgintza, margoketak, igeltsero lanak...
- e) Gaintegiko makineria erabiltzea.
- f) Udalaren administrazioaren kudeaketan laguntzeko bere esku uzten diren eginkizunak, hala nola jakinarazpenak, eskutitzak, mandatuak, kartelak eta abar bidaltzea eta eskura ematea.
- g) Altzariak, tresnak, eszenategiak, hesiak eta bestelako materialak muntatu, desmuntatu, paratu eta lekuz aldatzea.
- h) Konserje
- i) Igeltsero, iturgintza, elektrizitate, hornidura eta saneamendu, margoketa lanak
- j) Udalak agintzen dizkion beste guztiak, bere kategoriari badagozkio.

2.-Izangaiek bete beharreko baldintzak.

2.1. Oposizio-lehiaketa honetan onartua izateko, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean, izangaiek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Adin nagusia eta espainarra izan edo 27/1994 Foru Legeak aipatzen duen estatuetak nazionalitatea izatea.
- b) Prestakuntza minimoa: eskola ziurtagiria edo baliokidea
- c) Euskara maila. Euskara maila modu hauetan kreditatu daiteke: Ahoz B1 eta idatziz A2 eskakizuna edo baliokide den beste titulu bat izatea. Titulurik eduki ezean izangaiek proba bat gaingitu beharko du hizkuntz gaitasun nahikoa duela frogatzeko. Proba 2014ko martxoaren 14an goizeko 8:30ean, Etxarri Aranatzeko Udalan
- d) Dagozkion funtzioak betetzeko gaitasun fisiko eta psikiko nahikoa izatea.
- e) Diziplina espediente bidez Administrazio Publikoen zerbitzutik bereizita ez izana, eta eginkizun publikoak betetzeko desgaituta ez egotea.
- f) Langabetua izatea eta enplegu zebitzuan inskribatua izatea eta kolektibo hauetako izatea:
 - Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria Departamentuak gizarteratzeko edo lan munduan eta gizartean txertatzeko ematen dituen diru-laguntzak jasotzen ari direnak. (RIS, PREPARA edo senideak) Baldintza hau kontratazioa egiten denean bete behar da (emateko erabakia edo baieztoko txostena). Gizarte Zerbituzak konprobatuko du.
 - 50 urtetik gorako langabetuak.
 - 30 urtetik beherako langabetuak.
 - Desgaitasunen bat duten langabetuak, gutxienez %33ko desgaitasuna dutela aitortzen duen ziurtagiri baten bidez egiaztatua.
 - Luzaroko langabeak, kontratazio egunean gutxienez urtebete lehenagotik inskribaturik daudenak.

3.-Eskabideak.

Etxarri Aranazko udalak Altsasuko enplegu bulegoari eskatu dio baldintzak betetzen dituzten langileen zerrenda. Zerrenda martxoaren 13ko 13:00 baino lehen bidali beharko da.

4.- Epaimahai kalifikatzailea

4.1.-Epaimahai kalifikatzailea kide hauek osatuko dute:

Mahaiburua: Udaleko alkatea, Jose I. Bakaikoa Aristorena. Ordezkoa, Alkateordea, Aitor Karasatorre.

Idazkaria: Udal idazkaria, Silvia Gonzalo Etxarri. Ordezkoa, Maria Barkos, Lakuntzako Udaleko idazkaria.

1. Mahaikidea: Artzeina Campo Etxarri Aranazko udal aparejadorea. Ordezkoa, Alaitz (LUA), Etxarri Aranazko udal arkitektoak.

2. Mahaikidea: Arbizuko zerbitzu anitzetako udal langilea. Ordezkoa, Lakuntzako zerbitzu anitzetako udal langilea.

3. Mahaikidea: Francisco Javier Lizarraga Ondarra, zerbitzu anitzetako udal langilea eta Ordezkoa, Jesús Mari Etxarri Mendiola, zerbitzu anitzetako udal langilea.

Epaimahaia probak hasi baino lehen osatu beharko da.

4.2.-Epaimahaiak teknikoen laguntza izango du.

5-Oposizioa

5.1.-Oposizioan egin behar diren bi probak.

Bi probak egin behar dira. Lehendabizikoa egiten ez duenak ezin du bigarrenean parte hartu.

Lehenengo proba: Proba teorikoa (%20) 2014ko **martxoaren 18an goizeko 9:00tan Etxarri Aranatzeko liburutegian izango da.**

Beteko den lanpostuari dagozkion lanekin zerikusia duena: I. eranskineko eta deidaldiaren 1. oinarrian aipatzen diren funtzioetan oinarrituta.

Ariketa honen puntuazioa 20 puntu izango da.

Bigarren proba: Proba praktikoa (%80)**2014ko martxoaren 25ean goizeko 8:30tan Etxarri Aranatzeko hiltegi zaharrean izango da.**

Lanpostuari dagozkion lanekin zerikusia duen proba izango da: I. eranskineko eta deidaldiaren 1. oinarrian aipatzen diren funtzioetan oinarrituta.

Epaimahajaiak erabakiko du alde batetik, proba hau egun batean edo gehiagotan egitea, eta bestetik proben iraupena.

Ariketa honen puntuazioa 80 puntu izango da.

Ariketak hasi baino lehen epaimahaiak proben iraupena zehaztuko du.

Proben emaitzak, eta hurrengo proben ordua eta eguna udaleko iragarki oholean jarriko da. Ez dira banakako jakinarazpenak edo deiak izango.

5.2.-Deialdi bakarra egingen da probetarako, eta haietara izangaiek nortasun agiri nazionala daramatela agertu beharko dute, eta horrela ez bada, deialditik kanpo geratuko dira.

6.-Gaindituen zerrenda eta epamahiaren proposamena.

Azken proba kalifikatu eta gero, epaimahaiak emaitzak jendeaurrean jarriko ditu Etxarri Aranazko Udalaren iragarki-taulan. Gaindituen zerrenda puntuazioaren hurrenkeraren arabera egingen da proben emaitzak batuz, eta horrekin batera 2014an kontratatzeko 4 langileen kontratatzeko erabiliko da.

7.-Helegiteak

Erabaki honen kontra helegite hauetako bat paratzen ahalko da:

a) BERRAZTERTZEKO helegitea ebazpena eman duen organuari zuzendua, ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik hasita HILABETE BATEKO epean.

b)- ADMINISTRAZIOAREKIKO helegitea, Nafarroako Auzitegi Nagusian dagokion sailari zuzendua, edo Adminsitrazioarekiko Epaitegiari zuzendua, ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik hasita BI HILABETEKO epean.-

c)- GORA JOTZEKO helegitea, Nafarroako Adminstrazio Auzitegiari zuzendua, HILABETE BATEKO epean, ebazpen hau jakinarazten denetik hasita.

Gai zerrenda

1.-Etxarri Aranatzeko udalerria: Etxarri Aranazko herriak, kaleen eta auzoen izenak, mendiak, alderdiak, errekek, baserriak eta ur-biltegiak. udal eraikinak; festak eta erromeriak; herriaren historia, eta oihturak.

2.-Etxarri Aranatzeko Udala. Osaera. Osoko Bilkura, alkatea. Bilkuren araubidea. Egintza eta ebazpenak jakinaraztea.

3.- Etxarri Aranazko turismoa: ibilbideak, azpiegiturak, proiektuak.

4.- Zaborren kudeaketa Etxarri Aranazen

5.-Oinarritzko tresnak ezagutu, erabili eta mantentzea: Elektrizitatea, iturgintza eta berokuntza; Zurgintza; Lorezaintza eta mendian; garbitzeko eta margotzeko; eta igeltserotza.

6.- Planoak irakurri eta interpretatzea. Obra txikien eta konponketeten erreplanteoa egitea.

7.-Kaleak et plazak garbitzea, berdegunaek ureztatzea. Ondasun publikoak mantentzea.

8.-Oinarritzko lanak eta konzeptuak: Elektrizitatea, iturgintza eta berokuntza; Zurgintza; Lorezaintza eta mendian; garbitzeko eta margotzeko; zaborren kudeaketa eta igeltserotza.